

UDALEKU IREKIETARAKO BEGIRALEAK BEHAR DIRA

Uztailaren 4tik 22ra izango dira aurtengo Aretxabaletako udaleku irekiak eta dagoeneko begiraleak behar dira. Begiraleen ordutegia 08:30-13:30 izango da. **Kurrikulumak maiatzaren 9tik 18ra** arte bidali ahal izango dira ondorengo formulategia betez:

EZINBESTEKO IZANGO DA:

- Lan-kontratua egiterako egunean 18 urte beteak izatea
- Erdi mailako heziketa zikloak, batxilergoa amaituta izatea
- Euskara maila ona izatea

LEHIAKETA FASEA:

TITULAZIOA

- Aisialdi begirale titulua: **5 puntu**
- Gizarte hezkuntza, psikologia, pedagogia, magisteritza, Tafyd eta IVEF, gizarte eta kultur animazioa, gizarte integrazioa: **3 puntu** (ikasketak amaitu baldin badira) **2 puntu** (ikasketak gauzatzen ari baldin badira)
- Lehen sorospen titulua: **1 puntu**

LAN ESPERIENTZIA

- Udaleku irekietan urte bakoitzeko: **3 puntu**
- Udaleku itxietan urte bakoitzeko: **2 puntu**
- Gabonetako parkean begirale bezala aritu izatea: **1 puntu**
- Urtean zehar aisialdirako zerbitzuetako langileak (multikirolak, entrenatzaileak, dantza, ludoteka, hizkuntza errefortzuak...): **1.5 puntu**

*Atxabaltarrek lehentasuna edukiko dute.

*Puntuagarria den guztia egiaztatu beharko da.

*Aukeraketa egiterakoan aurreko urteetan egondako begiraleen ebaluaketak kontutan hartuko dira.

*Aipatzea nahiko genuke, begirale taldea berrizteko apostua egin nahi dugula azken aldian begirale titulua atera berri dutenek ere begirale esperientzia hau bizitzeko aukera izateko, beti ere beraien konpromezua eta lana eskatuta (beste guztiei bezala). Beraz, aurtien begirale taldearen %20 aurretik Aretxabaletako udaleku irekietan parte hartu ez dutenak izango dira.